



PARANGA

Mundu hobe baten bila



Gu Paranga enpresako kideak gara (Aiora Gaztañaga, Asier Oyarzabal, Ander Mujika eta Izaro Ibañez) eta plastikozko ontziak birziklatuz arropa marka bat sortzea erabaki dugu. Gure helburua herritarrek kontsumitutako plastikozko botiletatik abiatuta denontzat eskuragarriak eta jasangarriak diren jantzi modernoak sortzea da. Era horretan, ingurumenarentzat oso kaltegarriak diren edukiontzien kopurua murriztuko dugu eta sudaderak, kamisetak... salduz dirua lortu.



Gaur egun, arropa marka asko eta asko ingurumena kutsatzen ari dira beraien produktuak ekoizterako garaian, eta gainera, askotan entzun izan dugu hainbat langile esplotatuak izaten ari direla herrialde pobreetan, haien artean, umeak. Paranga enpresako kide garenok, bidezko merkataritza bultzatu nahi dugu, era jasangarrian arropa eginez eta salduz.